


Afektibitate- eta sexu-aniztasunaren kudeaketa

2011-2013ko lan-plana, Eusko Jaurlaritzak sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko diskriminazioaren aurka eta berdintasunaren alde abian jarritakoa



Euskadiko LGBT taldeekin batera landutako dokumentua


Azken dokumentua

2011ko uztaila



ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES




Afektibitate- eta sexu-aniztasunaren kudeaketa

2011-2013ko lan-plana,
Eusko Jaurlaritzak sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko
diskriminazioaren aurka eta berdintasunaren alde abian jarritakoa

“Errazagoa da molekula baten enigma argitzea
aurreiritzi bat desagerraraztea baino”

Albert Einstein




0. Esker onak

Dokumentu hau **parte-hartze prozesu** baten emaitza da. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak sustatu du prozesu hori, eta honako talde hauek ere parte hartu dute eta inplikatu dira zeregin horretan:

ALDARTE ♦ BIZIGAY ♦ EHGAM Bizkaia ♦ EHGAM Gipuzkoa ♦ ERRESPETUZ ♦
GEHITU ♦ LESBITORIA ♦ MAGALA ♦ SEHASKA ♦ TRANSEXUALIDAD EUSKADI

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak ere parte hartu du lan-programa hau egiteko hasierako fasean.

Gure esker ona egindako lanarengatik eta ahaleginengatik.
Zuen laguntzarik gabe ezin izango zatekeen programa aurrera eraman.
Eskerrik asko!



1. Hitzaurrea

Sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko diskriminaziorik ezaren eta berdintasunaren aldeko Lan Plana egin eta aurkeztea aurrera egitea da, Eusko Jaurlaritzak herritar guztien egiazko berdintasunaren alde eta euskal gizartearen bereizgarri diren aniztasunak ikusarazi eta onartzearen alde hartutako konpromisoan aurrera egitea. Horretarako, afektibitate- eta sexu-aniztasunaren inguruan antolatutako gizarte-erakunde ugariaren parte-hartzea, bultzada eta indarra izan ditugu. Zalantzarik gabe, kolektibo homosexualen, transexualen edo afektibitate- eta sexu-aniztasuna defendatzen duten taldeen lana eraginkorra izan da, urratsez urrats, lege-berdintasuna erabat onartzeko, diskriminazioaren aurka egiteko eta errealitate horien gizarte-errekonozimendurako.


Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran Udalek izatezko bikoteen erregistroak onartzeari ekin zioten, gizartearen sektore askok onartzen ez zuten —eta gaitzetsi ere egiten zuten— errealitate bat hortxe dagoela ikusarazteko asmoz, hau da, bikote homosexualen errealitatea; baina garai hartan ez ziren asko izan adostasun sozial eta politiko berri horrek eragingo zuten paradigma-aldaketaz ohartu zirenak.

Behetik bultzatutako neurri sinple bezain konprometitu horri esker, administrazioetan homosexualen errealitateari buruzko ikuspegia aldatu zen. Agenda politikoan zuzen-zuzenean txertatu zuten kolektibo jakin batzuei erantzuteko premia, trantsizioaren hasierako garaietatik ezberdin izateko aukera eta eskubideen errespetua aldarrikatzen zuten kolektiboek, hain zuzen.

Geroztik, izan dira gertaera gogoangarri gehiago ere. Lege-aldaketei esker berdintasunezko ezkontza sortu zen eta transexualek erregistroan aldaketak egiteko aukera izan zuten; elementu horiek guztiak paradigmatico bihurtu dira politikan, ideologietan eta gizartean eragin dituzten inplikazioak direla-eta.

2000. urtean Eusko Legebiltzarrak eskubide afektibo eta sexualak finkatzeko bultzada eman zuenetik, honako arlo hauetan ere aurrera egin da urratsez urrats: LGBT pertsonen eskubideen aldeko politika diseinatzen, askotariko errealitate horren errekonozimenduan eta kolektibo horien diskriminazioaren eta estigmatizazioaren aurkako borrokan.


Jaurlaritzak jakin badaki baterako esfortzu horretan aurrera egiten jarraitu behar dugula. Horregatik, Euskadiko LGBT pertsonen eta afektibitate- eta sexu-aniztasunaren alde lan egiten duten erakunde eta elkarteei dei egin diegu, guztion artean sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko diskriminaziorik ezaren eta berdintasunaren aldeko lehen lan-plana osa dezagun.



Plan zabala da eta Jaurlaritzaren eta sektoreko elkarten artean adostutako proposamen guztiak biltzen ditu. Garatu beharreko lanaren zeharkakotasunari bide eman nahi diogu planaren bidez; izan ere, planteatu diren arazo eta premiek errealitatearen eremu asko hartzen dituzte eraginpean. Planean 12 helburu orokor zehaztu dira eta 66 jardun proposatu dira, honako arlo hauetan garatzeko: hezkuntza, osasuna, talde bereziki kalteberen laguntza eta sentsibilizazioa.

Plan honen bidez, herritar libreagoz eta berdina goz osatutako Euskadi lortzeko gure ekarpena egin nahi genuke.

Gemma Zabaleta Areta
Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua



2. Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko diskriminazioaren aurka eta berdintasunaren alde **2011-2013rako ezarritako lan-plana** jaso dugu dokumentu honetan.

Datozen 3 urteetan Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailek afektibitate- eta sexu-aniztasunaren kudeaketan garatu eta gidatu beharreko ekintzak programatu eta planifikatu beharri erantzun nahi dio plan honek. Planak 2 helburu argi dauzka:


- Sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko diskriminazioaren aurkako eta berdintasunaren aldeko **politika publikoen** garapenean lan egitea.
- Euskal gizartea eta euskal gizartearen agenteak **sentsibilizatzea** sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko diskriminazioaren aurkako eta berdintasunaren aldeko jarreraren inguruan.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak egin du 2011-2013ko lan-plana, Euskadiko lesbiana, gay, bisexual eta transexualen (LGBT) talde interesdunekin **elkarlanean**.

Zenbait hilabetez, Zuzendaritzak eta LGBT taldeek elkarlanean jardun dute datozen 3 urteetan afektibitate- eta sexu-aniztasunaren kudeaketa-politiken alorreko premiak, lehentasunezko jardun-eremuak eta abian jarri beharreko neurri garrantzitsuenak zehazteko. Hortaz, dokumentu hau parte-hartze prozesu baten emaitza da, inplikaturako agente guztien konpromisoak eta gaitasunak ahalbidetu dutena.

Ondorengo orrietan 2011-2013ko lan-planaren edukia zehaztuko dugu, honako egitura honi jarraiki:

- Erreferentziazko esparrua eta testuingurua..... 7. or.
- Lehentasunezko jardun-eremuak..... 10. or.
- Inplikaturako entitateak..... 11. or.
- Edukia: helburuak eta ekintzak..... 12. or.
- Lehentasunezko ekintzak 25. or.
- Jarraipena eta ebaluazioa..... 36. or.



3. Erreferentziazko esparrua eta testuingurua

2000ko otsailaren 4an Eusko Legebiltzarrak onartutako ez-legezko proposamenaren ondorioz sortu da Eusko Jaurlaritzaren afektibitate- eta sexu-aniztasunaren kudeaketa-politiken **ibilbidea**.

Legebiltzarraren erabaki horren bitartez, Eusko Jaurlaritzari honako hauek eskatu zitzaizkion:


- Bere helburu eta jardun-ildoan artean, sexu-aukerarengatiko diskriminazioaren aurkako borrokarekin zerikusia duen guztia sartzeari, Amsterdameko Itunaren eskakizunekin bat etorritik.
- Gay eta lesbianoei eta haien lagun eta gertukoei aholku emateko, arreta eskaintzeko eta informatzeko zerbitzua abian jartzeko bitartekoak jartzea, Aldundiekin eta euskal udal nagusiekin elkarlanean, urtebeteko epean. Zerbitzu horren kudeaketan, gay eta lesbianoen eskubideen alde lanean ari diren irabazi-asmorik gabeko kolektiboak eta gizarte-erakundeak parte-hartzea sustatuko da. Erakunde eta talde horiei entzuzko zaie, halaber, zerbitzu horren eginkizunak, helburuak, dimentsioa, egitura eta ezaugarriak diseinatzean.
- Sexu-aukeraren askatasuna eta aukera homosexualaren normaltasuna aintzat hartzen dituzten curriculum- eta didaktika-materialak egitea.
- Aukera homosexualaren normaltasuna errespetatzearen eta aukera horren eskubideak defendatzearen aldeko sentsibilizazio-kanpainak egitea. Jaurlaritzak aintzat har dezake, halaber, bere publizitate-kanpainetan bikote homosexualen irudiak ere sartzeko aukera, bikote heterosexualak ageri diren normaltasun berberarekin.

Eusko Legebiltzarrak, 2000ko otsailaren 4ko osoko bilkura

Orduz geroztik, eta erabaki hori erreferentziazko harturik, Eusko Jaurlaritzak aurrera jarraitu du afektibitate- eta sexu-aniztasunaren kudeaketan. Hala, nabarmentzekoa da **Berdindu!** zerbitzua sortu eta garatu izana, besteak beste.

2002ko azaroan Berdinu! sortu zen, honako helburu hauekin:

- Gay, lesbiana, bisexual eta transexualak, nahiz horien senitarteko eta gertukoei arreta eta aholkularitza ematea, sexu-orientazioak edo genero-identitate gurutzatuak eragindako edozein arazori dagokionez.
- Berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako politikak diseinatzea honako hauek helburu hartuta: herri-administrazioak, hezkuntza-arloa, sindikatu eta enpresaburuak, alderdi politikoak, polizia, elkarleen mugimendua, eta abar; eta arreta berezia eskainita lege-arloko diskriminazioari eta gizarte-, hezkuntza- eta kultura-arlokoari.



Une horretatik aurrera eta gaur egun arte Berdinu! zerbitzuak agindutako zereginak bete ditu, zenbait administrazio-formularen bitartez.

Gaur egun, zerbitzua partaidetzan berraztertu eta hobekuntzak sartu ondoren, Berdinu! zerbitzuak honako ezaugarri hauek biltzen ditu:


Berdindu! zerbitzu bat da, hain zuzen ere:

- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren mendeko erantzukizun publikoko zerbitzua.
- EAEko LGBT elkarten aholkularitzaren babesari esker, zuzeneko kudeaketa eta zeharkako kudeaketa uztartzen dituen zerbitzua.
- Bere funtzionamendua LGBT taldeekin egindako sare-lanean eta lurraldetasunean (herriarren hurbileko arretaren bermea den aldetik) oinarritzen duen zerbitzua.

Berdindu! zerbitzuak honako funtzionamendu-eskema hau ezarri du bere **zereginak** garatzeko:

- **LGBT taldeei, familiei eta gertukoei aholkularitza eta arreta ematea**
2 arreta-maila daude:
 - 1. maila. Informazioa, orientazioa eta koordinazioa Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kudeaketaren bitartez, telefono-zerbitzuaren, posta elektronikoaren eta webaren bidez.
 - 2. maila. Aholkularitza psikologikoa, juridikoa eta laguntza indibiduala eta taldekoa: zerbitzu publikoa zeharkako kudeaketan, eta Eusko Jaurlaritzak koordinatuta.
- **Diskriminazioaren aurkako eta berdintasunaren aldeko politikak diseinatzea**
Diskriminazioaren aurkako eta berdintasunaren aldeko politikak garatu eta diseinatzea Eusko Jaurlaritzaren ardura da; eta, zehazkiago, Enplegu eta Gizarte Gaietako Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren ardura.
Horretaz gain, LGBT taldeekin parte hartutako sareko lanean oinarritzen da.


Nolanahi ere, 2010. urtean Eusko Jaurlaritzak eta LGBT taldeek Berdinu! zerbitzuaren funtzionamendua berraztertu zuten, eta hobetzeko moduko garrantzizko alderdi bat bazegoela antzeman zen.



LGBT taldeentzako, familientzako eta gertukoentzako aholkularitza eta arreta ongi dabilta, baina berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako zeharkako politikak lantzeko eta horietan sakontzeko **premia** antzeman da. LGBT taldeek hutsune ugari antzeman dituzte eremu horretan, eta beharrezkoa da, ia ezinbestekoa, Eusko Jaurlaritzak horri erantzun egokia ematea, politika aktiboak diseinatuz eta abian jarritz.

Eta horretarako, hain zuzen ere afektibitate- eta sexu-aniztasuna kudeatzeko sortu da 2011-2013ko lan-plan hau. **Planak honako hauek lortu nahi ditu:**

- Eusko Jaurlaritzaren berdintasunaren aldeko konpromisoa eta erantzukizuna zehaztea.
- Afektibitate- eta sexu-aniztasunaren integrazio-ikuspegiaren araberako sektore-politiken garapenean aurrera egitea.
- Euskal gizartea sentsibilizatzea LGBT taldeen errealitateen inguruan.
- Eta, horrekin guztiarekin, sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako borrokan laguntzea.



4. Lehentasunezko jardun-eremuak


2011-2013 aldian sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako politikari heltzeko, lan-plan honek lehentasunez jarduteko 5 eremu ezarri ditu.



Honako hauek dira:

- Osasuna eta sanitatea
- Hezkuntza
- Enplegua eta lan-merkatua
- Talde kalteberak
- Sentsibilizazioa

5 eremu horien barnean hartzen dira gure gizartearen lesbiana, gay, bisexual eta transexualen premia larrienak. Eusko Jaurlaritzak eta LGBT taldeek antzeman dituzte premia horiek guztiak, eta lan-plan honek erantzuna eman nahi die ondorengo 3 urteetan.



5. Inplikaturako entitateak


Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzari dagokio lan-plan hau **bultzatu eta koordinatzea**.

Gainera, eta jardun-eremuen arabera, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzaren honako sail hauetako inplikazioarekin eta laguntzarekin jardungo du:

OSASUNA ETA SANITATEA	Osasun eta Kontsumo Saila Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
HEZKUNTZA	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Kultura eta Gazteria Saila Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
TALDE KALTEBERAK	Herrizaingo Saila Justizia eta Herri Administrazio Saila Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
SENTSIBILIZAZIOA	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Lan-plana prestatu dugunontzat laguntza hori ezinbestekoa da, afektibitate- eta sexu-aniztasunaren kudeaketa-politiken zeharkakotasuna lantzeko eta alor horretan aurrera egiteko.

Eta horretarako, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak, aurrerantzean ere, Euskadiko LGBT talde interesdunen **parte-hartzearen** babesean jardungo du.




6. Edukia: helburuak eta ekintzak

Planak honako osagai hauek ditu:

- Lehentasunezko 5 jardun-eremu.
- 12 helburu orokor eta 26 helburu espezifiko.
- Eta plana taxutzen duten 66 ekintza edo neurri.

JARDUN EREMUAK	HELBURUAK	EKINTZAK/NEURRIAK
OSASUNA ETA SANITATEA	Helburu orokor 1 4 helburu espezifiko	15 ekintza
HEZKUNTZA	5 helburu orokor 8 helburu espezifiko	19 ekintza
ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA	2 helburu orokor 4 helburu espezifiko	6 ekintza
TALDE KALTEBERAK	helburu orokor 1 4 helburu espezifiko	11 ekintza
SENTSIBILIZAZIOA	3 helburu orokor 6 helburu espezifiko	15 ekintza

Jarraian eskema horren edukia zehaztuko dugu.



OSASUNA ETA SANITATEA	HEZKUNTZA	ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA	TALDE KALTEBERAK	SENTSIBILIZAZIOA
-----------------------	-----------	---------------------------	------------------	------------------


Osasuna eta sanitatea

Lan-planeko jardunek honako helburu hau lortu nahi dute osasunaren eta sanitatearen eremuan:


- Osasun-sistema publikoak LGBT taldeei kalitatezko arreta eskaintzea.

Horretarako, **honako helburu espezifiko eta ekintza hauek** planteatu ditugu.

1. Osasun-sistema publikoak LGBT taldeei kalitatezko arreta eskaintzea	
Helburu espezifikoa	1.1 Gurutzetako Unitatearen funtzionamenduan hobekuntzak sartzea, eta autonomian eta baimen informatuan oinarritutako osasun-eredu baterako trantsizioa sustatzea.
Ekintzak/Neurriak	
1.1.1 Genero Identitatearen Nahasmenduei buruzko Unitateari izena aldatzea, eta horren ordez Transexualitate Unitatea deitzea.	
1.1.2 Transexualitate Unitatearen zerbitzuak poliki-poliki hobetzea. - Hain zuzen ere, honako zerbitzu hauek hobetu behar dira: foniatria, logopedia, berreraikuntzako kirurgia-operazioak, laser bidezko bizar-tratamendua eta abar. - Transexualitate-unitatean, sexologiari eta transexualitateari buruzko prestakuntza jaso duten profesionalen presentzia eta parte hartzea.	
1.1.3 Osasun-tratamenduko prozesuak eta dokumentu ofizialetan sexua eta izena legez aldatzeko prozesuak bereiztea. Eusko Legebiltzarrari eskatzea Estatuari Erregistroari buruzko Legea aldatzeko eskaera egin diezaion. <i>Argibide-oharra:</i> Alde handia dago osasun-tratamendua hasi eta 6 hilabetera agertzen diren aldaketa fisikoen eta legezko aldaketan (2 urtera) artean, eta horrek zenbait gizarte-ondorio dakartza berekin.	
1.1.4 Osakidetzaren protokoloan hobekuntzak sartzea, psikiatriaren, endokrinoaren eta kirurgiaren alorretan. Hautazko prozesu terapeutikoa, interesdunak eskatuta, edozein fasetan (psikiatrikoa, hormonala eta kirurgikoa) gauza daitekeena. Transexualismoen eta buru-nahasmenduen koexistentzia onartzea. Psikiatria-ikuspegi batetik sexu-orientazioa eta genero-identitatea bereiztea.	
1.1.5 Hautxoengan sexuartekotasuna tratatzeko protokoloak betetzen direla aztertzea eta egiaztatzea.	
1.1.6 Diagnostikoaren arabera sexuartekotzat jo dituzten transexualei tratamendu ez-bereizgarririk ematea.	
1.1.7 Osasun-protokolo edo osasun-gida ez-patologizatzaileak lantzea.	
1.1.8 Adingabeentzako protokolo transexualizatzaile espezifikoa lantzea. Osasun Ministerioak sustatutako hobekuntzak txertatzea.	



1. Osasun-sistema publikoak LGBT taldeei kalitatezko arreta eskaintzea	
Helburu espezifikoa	1.2 Guruzetako Transexualitate Unitatea ezagutaraztea euskal osasun-sare publikoan.
Ekintzak/Neurriak	
1.2.1 EAEko osasun-zentro guztiei ofizialki jakinaraztea Guruzetako Transexualitate Unitatea indarrean dagoela.	
1.2.2 LGBT elkarte eta taldeei informazio-zirkular bat bidaltzea, Guruzetako Transexualitate Unitatean sartzeko moduaren eta zirkuitu osoaren berri emateko, eta zerbitzuaren erabiltzaileak izan daitezkeen profila eta ezaugarriak jakinarazteko.	
Helburu espezifikoa	1.3 Osasunaren Mundu Erakundeak transexualak gaixoen zerrendatik ken ditzan bultzatzea.
Ekintzak/Neurriak	
1.3.1 Gizarte-agenteen laguntza bilatzea, Osasunaren Mundu Erakundeak transexualak gaixoen zerrendatik ken ditzan bultzatzeko.	
Helburu espezifikoa	1.4 Osasun-baliabideak LGBT taldeen premietara hobeto egokitzea.
Ekintzak/Neurriak	
1.4.1 Osasunaren eremuko profesionalak informatzea eta prestatzea, Osasunaren Mundu Erakundeak jasotako lesbianismoaren eta homosexualitatearen inguruan.	
1.4.2 Sexu-orientazioarengatiko edo genero-identitatearengatiko diskriminazioari loturiko buru-osasuneko arazoak dituzten LGBT pertsoneri arreta psikosoziala eskaintzea.	
1.4.3 Sexu- eta ugalketa-osasuna hobetzea, homosexualtasuna, lesbianismoa, transexualtasuna eta bisexualtasuna aintzat hartuz prebentzioko osasun-neurrietan, ginekologian eta laguntza bidezko ugalketan.	
1.4.4 Emakume lesbikoei, bisexualak eta gizon transexualak laguntza bidezko intseminazioa ahalbidetzeko bideak irekitzea.	



OSASUNA ETA SANITATEA	HEZKUNTZA	ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA	TALDE KALTEBERAK	SENSIBILITAZIOA
-----------------------	-----------	---------------------------	------------------	-----------------


Hezkuntza

Lan-planeko jardunek honako helburu hauek dituzte hezkuntzaren eremuan:


- Irakasleak eta etorkizuneko profesionalak prestatzea eta trebatzea, afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez.
- Derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikasleak sentsibilizatzea eta prestatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez.
- Familiak sentsibilizatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez.
- Afektibitate- eta sexu-aniztasuna eta familia-aniztasuna hezkuntza ez-formalera biltzea.
- Eremu psikosozialeko eta sanitarioko profesionalak sentsibilizatzea eta prestatzea.

Horretarako, honako **helburu espezifiko eta ekintza** hauek planteatu ditugu:


1. IRAKASLEAK eta ETORKIZUNEKO PROFESIONALAK prestatzea eta trebatzea, afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez	
Helburu espezifikoa	1.1 Irakasleak prestatzea eta trebatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez.
Ekintzak/Neurriak	
1.1.1 Irakasleentzako etengabeko prestakuntza-eskaintzan afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari buruzko prestakuntza-ikastaroak txertatzea: GARATU programa.	
1.1.2 Urtean behin afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari buruzko jardunaldia antolatzea irakasleentzat.	
Helburu espezifikoa	1.2 Etorkizuneko profesionalak prestatzea eta trebatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez.
Ekintzak/Neurriak	
1.2.1 Irakasle-ikasketen eta Pedagogiaren mailetan eta Derrigorrezko Hezkuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterrean (garai bateko IGI) afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari buruzko nahitaezko irakasgai bat txertatzeko izapideak egitea. EHUn gai horretan espezializatutako aukera askeko irakasgai bat sortzeko izapideak egitea.	
1.2.2 Afektibitate- eta sexu-aniztasunari buruzko ikastaro/jardunaldi bat abian jartzea eta EHUn fakultateetako ikasleen aukera askeko kredituekin baliozkotzea. Jardunaldi edo ikastaro bat aukera askeko kredituekin baliozkotzeko jarraitu beharreko prozesua ikertzea. Bereziki, honako fakultate hauetan izango du eragina: Irakasle Eskola, Pedagogia, Medikuntza, Psikologia, Gizarte Lana, Zuzenbidea; eta Derrigorrezko Hezkuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterra (garai bateko IGI).	



2. Derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako IKASLEAK sentsibilizatzea eta prestatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez	
Helburu espezifikoa	2.1 Afektibitate- eta sexu-aniztasuna eta familia-aniztasuna hezkuntza-curriculumean integratzea.
Ekintzak/Neurriak	
2.1.1 Prestakuntza-programa edo pedagogia-eskaintza bat lantzea hezkuntza-zikloaren arabera: haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide-heziketa.	
2.1.2 Kalitatezko materialak biltzea: eskolarako baliabide eta materialen gida sortzea.	
2.1.3 Pedagogia-eskaintza osatzeko kalitatezko materialak egitea.	
2.1.4 Materialen eskaintza 2.0 hezkuntzara eta teknologia berrietara egokitzea.	
2.1.5 Lurralde historikoetako zentroetan esperientzia pilotuak abian jartzea, talde profesional espezializatuen eta lehen pertsonako testigantzen laguntzarekin.	
2.1.6 Ikastetxeetan Interneten sartzea ahalbidetzeko irizpideak egokitze eskaera egitea.	
Helburu espezifikoa	2.2 LGBT taldeetako parte senti daitezkeen adingabeei aholku ematea eta horien jarraipenean laguntzea.
Ekintzak/Neurriak	
2.2.1 Berdinu! zerbitzuaren web-orria garatzea, ikastetxe interesdunentzako informaziogune eta harremanetarako kanal gisa.	
2.2.2 Afektibitate- eta sexu-aniztasunean adituak direnen (sexologiaren eta sexu- eta genero-hezkuntzaren alorreko prestakuntza jaso dutenak) zuzeneko esku-hartzeak, laguntza eta aholku emateko. Lehen pertsonan kontaktutako testigantzen berri emango duten gune zehatzak txertatzea.	
Helburu espezifikoa	2.3 Afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez, ikasleek dituzten jarrera eta balioen bilakaera aztertzea.
Ekintzak/Neurriak	
2.3.1 Hezkuntza-sisteman diagnostiko-azterlanak egitea, afektibitate- eta sexu-aniztasunaren eta familia-aniztasunaren inguruko balioak eta jarrerak neurtzeko.	



3. FAMILIAK sentsibilizatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez	
Helburu espezifikoak	3.1 Familiekiko komunikazioa eta informazioa lantzea, afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez.
Ekintzak/Neurriak	
3.1.1 Afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari buruzko hainbat gako eta orientazio bilduko dituen gida didaktikoa lantzea. Gida hori guraso-elkarteen federazioen, guraso-eskolen eta abarren bitartez hedatzea.	
3.1.2 Guraso-elkarteentzako prestakuntza-topaketa eta -jardunaldiak antolatzea, aldi berean familien premia espezifikoak jasotzeko aukera emango dutenak.	
4. Afektibitate- eta sexu-aniztasuna eta familia-aniztasuna HEZKUNTZA EZ-FORMALERA biltzea	
Helburu espezifikoak	4.1 Afektibitate- eta sexu-aniztasuna eta familia-aniztasuna hezkuntza ez-formalean integratzea.
Ekintzak/Neurriak	
4.1.1 Prestakuntza-programa edo pedagogia-eskaintza lantzea xede-hartzaileen arabera (elkartek, esperientzia-gelak eta abar).	
4.1.2 Astialdiko eskoletako hezitzaileentzako prestakuntza espezializatua.	
5. Eremu psikosozialeko eta sanitarioko PROFESIONALAK sentsibilizatzea eta prestatzea	
Helburu espezifikoak	5.1 Eremu psikosozialeko eta sanitarioko profesionalak prestatzea eta trebatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari dagokienez.
Ekintzak/Neurriak	
5.1.1 Afektibitate- eta sexu-aniztasunari eta familia-aniztasunari buruzko aldizkako prestakuntza-saioak egitea eremu psikosozialeko eta sanitarioko profesionalentzat.	
5.1.2 Eremu psikosozialeko eta sanitarioko hirugarren mailako prestakuntza-programetan afektibitate- eta sexu-aniztasuna eta familia-aniztasuna txertatzea.	



OSASUNA ETA SANITATEA	HEZKUNTZA	ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA	TALDE KALTEBERAK	SENTSIBILIZAZIOA
--------------------------	-----------	------------------------------	---------------------	------------------


Enplegua eta lan-merkatua

Lan-planeko jardunek honako helburu hauek dituzte enpleguaren eta lan-merkatuaren eremuan:


- Lan-eremuan afektibitate- eta sexu-aniztasunari buruzko sentsibilizazioa lantzea.
- Enpresa- eta ekonomia-mundua sentsibilizatzea, kontratazioan sexu-orientazioarengatiko edo -identitatearengatiko diskriminazioa saihesteko.

Horretarako, honako **helburu espezifiko eta ekintza** hauek planteatu ditugu:

1. Lan-eremuan afektibitate- eta sexu-aniztasunari buruzko sentsibilizazioa lantzea	
Helburu espezifikoa	1.1 LGBT taldea lan-eremuan zer egoeratan dagoen ikertzea eta jakitea.
Ekintzak/Neurriak	
1.1.1 LGBT taldeen gaiari buruzko esperientziak eta informazioa biltzea: aldez aurreko azterlanak, elkarten ibilbidea eta jakintza, beste talde batzuek beste eremu batzuetan (Erresuma Batuan adibidez) egindako azterlanak, eta abar.	
1.1.2 Afektibitate- eta sexu-arrazoiengatiko lan-diskriminazioaren egoera ezagutzeko diagnostiko-azterlana egitea.	
Helburu espezifikoa	1.2 Langile eta sindikatuak sentsibilizatzea afektibitate- eta sexu-aniztasuna errespetatzeko premiaren inguruan, jarrera homofobo, lesbofobo edo transfoboak saihesteko.
Ekintzak/Neurriak	
1.2.1 Lankide onaren dekalogoia sortzea eta hedatzea: lantokian homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko neurriak. Gizarte-agentekin elkarlanean.	



2. Enpresa- eta ekonomia-mundua sentsibilizatzea kontratazioan sexu-orientazioarengatiko edo -identitatearengatiko diskriminazioa saihesteko	
Helburu espezifiko	2.1 Sindikatuekin, patronalarekin, Lanbiderekin eta gizarte-agenteekin komunikatzeko bideak abian jartzea.
Ekintzak/Neurriak	
2.1.1 Lana gizarte-agenteekin (sindikatuak, patronala, Lanbide eta beste agente batzuk).	
Helburu espezifiko	2.2 Lan-merkatuan sexu-orientazioarengatiko edo -identitatearengatiko diskriminazioa saihestea.
Ekintzak/Neurriak	
2.2.1 LGBT taldeentzako eta bereziki transexual eta transgereneroentzako enplegua sustatzeko politikak garatzea. <i>Oharra:</i> Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak aniztasuna kudeatzeko politika espezifiko bat jarriko du abian, zenbait taldek eta pertsonak lan-merkatuan sartzeko dituzten oztopoak murrizteko.	
2.2.2 Sexu-orientazioarengatiko edo -identitatearengatiko diskriminazio-egoeretan lagun dezaketen tresnei buruzko alternatibak aztertzea. Esaterako: Berdindu! zerbitzuan lan-zuzenbideko aditu bat aritzea edo enpresan berdintasun-ordezkararen figura bultzatzea.	



OSASUNA ETA SANITATEA	HEZKUNTZA	ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA	TALDE KALTEBERAK	SENTSIBILIZAZIOA
-----------------------	-----------	---------------------------	------------------	------------------


Talde kalteberak

Lan-planeko jardunek honako helburu hauek dituzte talde kalteberen eremuan:

- Diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten taldeei arreta berezia eskaintzea.

Horretarako, honako **helburu espezifiko eta ekintza** hauek planteatu ditugu:

1. Diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten taldeei arreta berezia eskaintzea	
Helburu espezifikoa	1.1. Indarkeria jasaten duten eta tratu txarren biktima diren pertsonen arreta eskaintzea.
Ekintzak/Neurriak	
1.1.1 Sexu-diskriminazioarengatiko indarkeria-egoeren gaineko azterlan espezifiko kuantitatibo eta kualitatiboak, kasuistiken arabera: genero barneko indarkeria; bullying edo eskola-jazarpen homofobikoa, lesbofobikoa, transfobikoa eta bifobikoa; indarkeria familian; eta abar.	
1.1.2 Genero barneko indarkeria eta NAN agirian emakume-generoa erregistratu ez zaien emakume transexualek jasaten duten indarkeria tratu txarren biktima direnen arretarako protokolo integraletan edo egokitutako jotzen diren figuretan sartzea.	
1.1.3 Genero barneko indarkeria ikusaraztea tratu txarren aurka prebenitzeko kanpainen.	
1.1.4 Bullying edo eskola-jazarpen homofobikoaren, lesbofobikoaren, transfobikoaren eta bifobikoaren aurkako protokoloak egitea. Sentsibilitate hori eskola-jazarpenaren aurkako protokoloetan biltzea, zeharka eta modu barne-hartzailean.	
Helburu espezifikoa	1.2. Adinekoentzako eta aniztasun funtzionala dutenentzako arreta.
Ekintzak/Neurriak	
1.2.1 Eremu horietan jarduten duten entitateentzako informazio- eta prestakuntza-kanpainak.	
Helburu espezifikoa	1.3. Etorkinentzako eta ijitoentzako arreta.
Ekintzak/Neurriak	
1.3.1 Harresiak Apurtuz etorkinen laguntzarako Euskadiko GKEen koordinakundearekiko elkarlana eremu horretan jarduteko.	
1.3.2 Berdin! eta Biltzen zerbitzuen eta Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren arreta juridikoko zerbitzuaren arteko elkarlana.	
1.3.3 LGBT taldeak etorkinen eta ijitoen komunitateetan zer egoeratan dauden aztertzea.	
1.3.4 Etorkin eta ijitoen informazioa ematea gai horretan eskuragarri dauden arreta-, aholkularitza- eta orientazio-bideen inguruan.	



1. Diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten taldeei arreta berezia eskaintzea


Helburu espezifikoak

1.4. Espetxeratutako jendeari arreta eskaintzea.

Ekintzak/Neurriak

1.4.1 Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako LGBT errealitatea aztertzea, espetxe-arloko instituzioekin elkarlanean.

1.4.2 Espetxeetan homofobiaren eta transfobiaren aurka sentsibilizatzeko kanpainak egitea, egun seinالاتu jakin batzuk aprobetxatuz.



OSASUNA ETA SANITATEA	HEZKUNTZA	ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA	TALDE KALTEBERAK	SENTSIBILIZAZIOA
-----------------------	-----------	---------------------------	------------------	------------------


Sentsibilizazioa

Lan-planeko jardunek honako helburu hauek dituzte talde sentsibilizazioaren eremuan:

- Gizartea sentsibilizatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunaren eta familia-aniztasunaren inguruan.
- Gure gizartean sexu-aniztasunei dagokienez ageri diren gorroto-diskurtsoak antzematea.
- Pertsonen sexu-diskriminazioaren aurka borrokatzeko mekanismoak sortzea eta LGBT taldeei horiei buruzko informazioa ematea.

Horretarako, honako **helburu espezifiko eta ekintza** hauek planteatu ditugu:

1. Gizartea sentsibilizatzea afektibitate- eta sexu-aniztasunaren eta familia-aniztasunaren inguruan	
Helburu espezifikoa	1.1. Afektibitate- eta sexu-aniztasunaren inguruko informazio interesgarria sortzea.
Ekintzak/Neurriak	
1.1.1 LGBT taldeei buruzko azterlan espezifikoak lantzea. Gaur egungo gai interesgarriei buruzko eta ibilbide historikoa egin duten beste zenbaiti buruzko informazioa eta estatistikak sortzea. Esaterako: azken 40 urteetan sexu-askapenaren alde egindako borrokari buruzko memoria historikoa; bere homosexualitatea aitortu duten pertsonaia historikoak ikusaraztea, eta abar.	
